



ZALDIBIKO UDALA
(Gipuzkoa)

2017IERR0003

ZALDIBIAKO UDALA

IRAGARKIA


Zaldibiko Udalbatzarrak, 2017ko maiatzaren 11an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespena ematea TXAKURREN ERABILERA ETA ZAINZKEKO UDAL ordenantzari, jendeaurreko epea pasa onodoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onespén hau behin betikoa izango dela esanez.

Jendeaurreko epea pasa ondoren eta erreklamaziorik aurkeztu ez direnez, ordenantza behin betiko onartutzat jo da.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Zaldibia, 2017ko uztailaren 7an.

ALKATEA,

Kodea	O 17/0022	Udala	ZALDIBIA	
Data	2017/uzt./07			
URL	https://munigex.net/r/eu/78/AAAAATM06			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu.				



ZALDIBIKO UDALA
(Gipuzkoa)

ERANSKINA

TXAKURRAK ERABILI ETA ZAINTEKO UDAL ORDENANTZA

I.- IDAZPURUA

XEDEA ETA EZARPEN EREMUA

1. artikulua.

Txakurrak, erabiltzeko, eta zaintzeko arauak ezartzea da ordenantza honen xedea.

Bertan, arau haustek eta santzioak sailkatzen dira eta santzioak gauzatzeko jardunbidea ezartzen da.

2. artikulua.

Ordenantza honek Zaldibiko udalerrri osoa arautzen du.

II.- IDAZPURUA

TXAKURRAK

3. artikulua.

Ezin da txakurrik sartu jolastoki, lorategi, kirol instalakuntza eta establezimendu publikoetan.

Ezta ere ezin da txakurrik sartu besteen lur sailetan eta oraindik gutxiago bertan ganadu, ardi, oilo edo bestelako etxabererik aurkitzen bada.

4. artikulua

Udal zerbitzu teknikoek txakurrek sortutako eragozpenen berri emango diote Udalari, beren kasa, zein norbaitek salaketa bat jarrita.

5. artikulua.

Txakurra bazterrera ezingo da utzi, era berean ezingo da tratu txarra eman txakurrari. Txakurra nahi ez duenak jabe bat bilatu beharko dio, edo bestela animaliak babesteko elkarte bati eman.

6. artikulua.

1. Itsu bati laguntzen dion txakurra jendearentzako toki, ostatu, denda, lokal eta garraiobideetan sartu ahal izango da.



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

2. Agintaritzaren mandatari batek edo lokalaren arduradunak eskatzen badio, itsuak txakurra gida-txakurra dela eta osasun baldintzak betetzen dituela egiaztatu beharko du.

3. Itsu txakurra gaixo, erasokor, zikin edo arriskutsua delako susmoa badago, ezin izango da lehenengo zenbakian adierazitako lekuetan sartu.

7. *artikulua.*

Hozka egiteagatik, txakurraren jabeak derrigorrezko betebeharra izango du, txakurra al baitariarengana eramatea eta gaixotasunik ez duela egiaztatzea. Aldi berean, txakurraren jabeak, hozka jasan duena medikuarengana eraman beharko du sortutako kalteak hala eskatzen badu.

8. *artikulua.*

1. Herri bideetan eta jendearentzako gainontzeko ibiltokietan, txakurrek soka eta lepoko bat eraman beharko dute; sokaren neurria gehienez bi metrotakoa izango da eta txakurraren ezaugarrietara egokitutakoa. Hau bete beharrik ez dute izango artzain txakurrek bere lanean ari direnean.

Bere izaera eta itxuraren arabera arriskutsuak gerta litezkeen txakurrak muturrekoarekin ibiliko dira. Modu berean muturrekoa eraman beharko dute inoiz inori hozka egin dioten txakurrek, dena den Ekainaren 1eko 101/2004 ko Dekretua izan beharko da kontuan

2. Txakurra daramana gai izan behar da, txakurraren indar eta pisuaren arabera, edozein gertakizun dela eta txakurrak har dezaken jarrerari erantzuteko eta eusteko.

9. *artikulua.*

Txakurren hondakinak isuri ezinezkoak dira leku publikoetan. Txakurren jabearen egitekoa da hondakinak jaso eta modu egokienean desagertaraztea.

10. *artikulua.*

Aurreko artikuluan jasotakoa bete ezean, animalia daramanak edo, bere ordeztan, jabeak izango du erantzukizuna.

11. *artikulua*

Baserri atarietan txakurrak lotuta egon beharko dute edo nagusiaren zaintzapean.

III.- IDAZPURUA

ZIGOR ARAUAK

ATALBURUA. ARAU HAUSTEAK



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

12. artikulua.

Ordenantza honen ondorioetarako, arau haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira, Eusko Legebiltzarrak urriaren 29ko 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat eta ekainaren 1eko 101/2004 ko Dekretuarekin bat, haustearen larritasuna neurtzeko hauek izango dira aintzat hartu beharrekoak: Pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, axolagabekeria, kaltearen larria eta behin baino gehiagotan kalte egin izana.

13. artikulua.

Hauek dira arau hauste arinak.

a) 5 eta 9. artikuluetan jasotakoak.

14. artikulua.

Hona hemen arau hauste larriak: 3, 7 eta 8. artikuluan jasotakoa.

15. artikulua.

Hona hemen arau hauste oso larriak:

3, 5, 7, 8 eta 9 artikulua bigarren aldiz haustea.

Ordenantza honetan arautzen diren gaietan egindako hutsek honako santzio hauek izango dituzte:

ATALBURUA.SANTZIOAK

16. artikulua.

1. Eusko Legebiltzarrak urriaren 29an emandako 6/1993 Legeko sailkapenarekin bat etorritik, ordenantza honetan egindako hutsengatik 30,05 €tik 15.025,30 € arteko isuna ordaindu beharko da:

- a) Arau hauste arinak, 30,05 €tik 300,51 € arte.
- b) Arau hauste larriak, 300,51 €tik 1.502,53 € arte.
- c) Oso arau hauste larriak, 1.502,53 €tik 15.025,30 € arte.



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

2. Ordenantza honetako santzioen zenbatekoak urtero aldatuko dira, berez eta besterik gabe, kontsumorako prezioen indizearen arabera, aurreko urteko santzioen zenbatekoak oinarri hartuta.

ATALBURUA. SANTZIO JARDUNBIDEA

17. artikulua.

Santzio jardunbideari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak xedatutakoa beteko du Udalak.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Udal Sanitateak ordenantza honetan xedatutakoari buruzko aholkua eskatu ahal izango die profesionalen erakundeei zein animaliak babesteko elkarteei.

2. Ordenantza honetan jasotzen ez diren kasuetarako, Eusko Legebiltzarrak 1993ko urriaren 29an emandako 6/1993 Legeak, Animaliak Babesteari buruzkoak, xedatutakoari jarraituko zaio.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza honek Udalbatzak behin-betiko onespena emateko hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamunean hartuko du indarra.

Zaldibian, 2017ko maiatzaren 3an